

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



## ODOL EMAILEAK

### Oraindik ere, marka hobetzera

Irailen 68 odol emaile izan dira, eta horietatik bi, berriak. Urteko bigarren zifra onena izan da, eta asteartean, hurrengo zitan, berriro ere marka hobetzea izango da helburua. ||

## AMHER

### Ordenagailu bila, Internet Gelarako

Etorkinentzako Internet Gela osatzen ari da Amher Kulturarteko Elkarteak, eta horretarako, soberan dauzkaten ordenagailuak eskatu dizkiete hermaniarrei, enpresa nahiz partikularrei. Portatilak edo mahai ordenagailuak, denak izango dira ongi etorriak, funtzionatzen badute. Harrematarako: 690 953 111. ||

## LIZEAGAKO JAIK

### Festarekin aurrera, gibeletik ere

Gibelalde elkarteak antolatuta, azken eguna izango dute gaurkoa Lizeagako festek. 'Atzeko aldean' dagoen elkarteak ez da atzean geratu! Tortillak, sagardoa eta musa izango dira gaur.

FESTAK antolatzeak lana ere ematen duela, eta atzealdean, baina gogotsu aritu da lanean Lizeaga auzoko Gibelalde auzo elkarteak.

Ostiralean hasi zituzten festak, eta atzokoan egun osoan izan zen jai-giroa auzoan. Gaur ere, beste pixka baterako tartea izango da, noski!

#### Adinekoak ere, gogoan, jan-edanera jo aurretik

Eguna adinekoak omentzen hasiko dute, Sandiusterrin, egoitza ere auzoaren parte baita.

Jan-edanerako aukera izango da gero: tortilla lehia-keta egingo da, eta sagardo dastaketa ere bai. Toka, botea

#### EGITARAUA

- 10:30**, Omenaldia adinekoei, Sandiusterrin.
- 11:30**, Tortillak eramateko ordu-muga, lehiaketan parte hartzeko.
- 12:30**, Sagardo dastaketa eta trikitixa.
- 12:30**, Toka eta bote txapelketak.
- 16:00**, Mus txapelketa, Lizeaga tabernan.
- 20:00**, Jaien bukaera.

eta musarekin borobilduko dute eguna.

Xakean, Devesa eta Estefano Ostiraleko Xake Txapelketari dagokionez, 16 haurrek hartu zuten parte, eta Ekaitz Devesa eta Ekain Estefano nagusitu ziren haundien eta txikien kategorian, hurrenez hurren. ||



Ekaitz Devesa eta Ekain Estefano izan ziren Xake Txapelketako irabazleak.



Lizeagako auzotar guztiak bildu ziren atzo, bingoan aritzeko.

Argazkiak: kronika.eus



## BERDINTASUNA BELDUR BARIK

### Ikus-entzunezkoen bi lehiaketa, Beldur Barik bizitzeko

Azaroaren 9ra arte aurkeztu ahal izango dituzte lanak 12 eta 26 urte arteko gazteek. Sari nagusiaz gain, Hernanin beste bat banatuko da. Bestalde, urriaren 27an topaketa egingo da.

MARTXAN jarri da, hirugarrenez Hernanin, Beldur Barik programa, Udalak, Berdintasun Kontseiluak, Arremanitzek, Gaztelekuak eta herriko hainbat eragile feministek bultzatuta. Horrela, ikus-entzunezkoen lehiaketa orokorraz gain, Hernanin ere sariak banatuko dira.

**Indarkeria sexista prebenitzeko** Beldur Barik EAEko instituzioek bultzatutako programa da, in-

darkeria sexista prebenitzeko. Beldur Barik jarrera bultzatu nahi da gazteen artean, hainbat bide erabilita.

Horietako bat da ikus-entzunezkoen lehiaketa. Neska eta mutilek desberdintasun egoeren aurrean nola erantzuten duten erakutsi behar da lan horietan. Aurtengo lehiaketan parte hartzeko epea irekita dago azaroaren 9ra arte, eta oinarriak ikusi eta lanak

aurkezteko [beldurbarik.eus](http://beldurbarik.eus) webgunera jo behar da; 12-17 urte arteko eta 18-26 urte arteko kategorietan hartu daiteke parte (adin txikikoek baimena behar dute izena emateko).

**Hernanin, beste sariketa bat** Lehiaketa orokor horretako sariak azaroaren 24an banatuko dira, eta bertara joateko autobusa jarriko da doan, Hernanitik (izena webgunean).

Baina Hernanin ere beste sari bat banatuko da kategorian bakoitzean, 150 eurokoa. Sari banaketa hori azaroaren 23an egingo da, 18:30etan Biterin.

Horrez gain, urriaren 27an topaketa egingo da, 10:00etan Biterin. Izaro Auzmendik eta Ibai Fresnedok tailer bana emango dute. Autodefentsa feminista, sexualitate parekidea eta ligoteo eta pornografia landuko dira. ||

## ORAIN PRESOK

### Deialdia, talde askoren artean

Prentsaurrekoa eman zen ostiralean Hernanin, urriaren 20an Donostian egingo den manifestazioarako deia egiteko. Deialdia hainbat eragilek osatzen duen *Orain Presoak* dinamikak egiten du, eta ez Sarek bakarrik. ||

## SB HARROBIRA

### Etzidamu, tailerra

Santa Barbarako harrobian zer egin erabakitzeaz azken-aurreko bilera egingo da asteazkenean, 19:00etan Biterin. ||

**Funeraria VASCONGADA**  
Zure eskura

24h-ko zerbitzua  
**943 376 980**

Orkolaga, 2-4  
943 55 79 01  
HERNANI

[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

**Adarraga**  
Konfitegia  
Pasteldegia

Urbietan Etorbidea 7  
943 55 09 10

**Latxe**

Bigarren alea kalean!

Jaso nahi izanez gero egin harpide!

[latxe@kronika.eus](mailto:latxe@kronika.eus)  
943 33 08 99

Urumeako ur-titotan barrena

☎ TAXIAK: 943 550093 | UDALTAINGOA: 943 248900 | DYA: 943 464622 | AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 | JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103 ☎ / Egunez: Castilla Urbietan, 7 (Hernani) 943 552941 / Gauez: Castilla Urbietan, 7 (Hernani) 943 552941

**EGURALDIA**  
**GAUR** Arratsaldara arte giro eguzkitsua nagusituko da, baina haizea iparraldetik finkatu eta indartzean, lainoak agertuko dira. Azken orduan xirimia egin dezake. **Min.12° / Max.21°**  
**BIHAR** Zeru lainotuta egongo da, euria egingo du tarteka, eta iparraldeko haizea bizi ibiliko da. Giro tristea, hezea eta freskoa izango dira. **Min.13° / Max.18°** (euskaime)

## MENDIZALETASUNA

# Himalayatik agurra, hernaniarrei

Ostiralean lortu zuten Mikel Zubeldia eta Juanra Jódar hernaniarrek Himalayako Thorong Peak (6.202m) gailurra egitea, Uzkudun gogoan.

ZAZPI ordu inguruko ahaleginaren ondoren, gailurra egitea lortu dute Mikel Zubeldia eta Juanra Jódar mendizale hernaniarrek, Himalayan.

Annapurnako eskualdean dagoen Thorong Peak, 6.202 metroko puntara igo ziren ostiralean. Igoera nahiko zaila izan bada ere, pozik sentitu dira helburua lortuta, eta hernaniarrek gogoratu dira.

Juanra Jódar bereziki Jesus Uzkudunekin gogoratu da, gaztetan mendizalearen arra sortu baitzion, eta eskerak eman nahi izan dizkio puntatik bidalitako mezua bidez: «Jesus, zurekin ikasi genuen mendi eta zuhaitzen berdetasunean gozaten, eta gaur, Himalayako gailur honetatik, oroimenak bueltan ekarri dizkit elkarrekin pasa genituen egun haietako asko. Eskerrik asko». ||



Juanra Jódar eta Mikel Zubeldia hernaniarrek Himalayan (Thorong Peak).

## EAJ-PNV PRENTSA OHARRA

# Igerilekuei buruz EAJ, ez ohiko plenoan

Jeltzaleek eskatuta egingo da ez ohiko plenoa ostegunean, 12:00etan. Bestalde, harrobiaren egoeraren inguruko kezka ere azaldu du alderdiak.

HAINBAT zalantza agertu ditu EAJk kiroldegiko igerilekuen inguruan, eta horiek argitzeko ez ohiko plenoa egingo da ostegunean, eguerdiko 12:00etan udaletxean.

Denera, 10 puntu lantzeko eskatu dute jeltzaleek. Besteak beste, galdetu dute ea nola konpondu den biomasa galdarari dagokion kalkulu akatsa; ea zergatik ez dagoen lamina isolatzaile, «Eraikinetako Instalazio Termikoetarako Araudiak (RITE) derrigorrezkotzat jotzen baditu igerileku klimatizatuetan, energia kontsumoa eta kutsadura atmosferikoa gutxitzeko»; ea zergatik jarri diren makina edo tresna berri batzuk, legediaren arabera ondo zeuden zaharrak mantendu behar baziren; ea zer gertatu den azpikontratuekin; ea zergatik arkitektoak «obrak iraun bitartean dokumentuak sinatu dituen eta bukatzean ez»...

Era berean, EAJk azaldu du, makina batzuei dagokien: «baliteke instalazioetako beharrak betetzeko nahiak ez izatea».



Harrobian obra-hondakinak daudela salatu du EAJk.

### Harrobiaren

#### errehabilitazioak, kezkak

Bestalde, Hernaniko zarataren bueltan iraileko Plenora aurkeztutako mozioaren inguruan «herritarren babes haundia jaso» izana eskertu du EAJk, eta azaldu du egindako proposamenen balio ekonomikoa jakin nahi duela Bilduk, eta horregatik «mahai gainean geratu» dela. «Espero dugu dirua aitzakia ez izatea, zaratak hernaniarroi sortzen digun arazoari konponbideak jartzen hasteko».

Hori guztiaz gain, alderdiko hiru zinegotzik hil honen 22an harrobira egindako ibilaldiak sortutako kezka kaleratu nahi izan ditu. «Espazio garbia eta belarrez estalia

espero genuen, harrobia indusketatik ateratako lur naturalarekin bete behar baitzen, baina obra-hondakinak topatu genituen bidean». Era berean, gogorarazi du 2006an, Zerbitzu Publikoetako zinegotzia EAJkoa zenean, martxan jarri zela Hernaniko BerdeGunea proiektua, eta hernaniarrek proposatuta, igerilekue-tako, Ave Mariako, Panako eta Harrobiko parkeak hobetzeko aurreproiektua zehaztu zela. Hori horrela, pasa den Plenoan Bilduri eskatu dio «betetzeko erabilitako materialaren laginak aztertu ditzala (...) Harrobiaren errehabilitazioa kalitate maila gorena egin behar da». ||

## HITZ-ANDANA

# Hitzen jaialdia, 3 egunez

Urriaren 3, 4 eta 11n egingo da Hitz-andana jaialdia. Asteazkenean 3 emanaldi izango dira.

HITZAREN inguruko jaialdia da Hitz-andana, eta asteazkenean hasiko da, hiru emanaldirekin. Tramankuluak kontaketa antzetzua egingo da aurrena, 17:30etan Biterin, sei urtetik gorakoentzat. Ados teatroak, berriz, Xuxurlariak kale antzerkia egingo du Plazan, 18:30etan. Eta 20:00etan Oxido mikro antzerkia antzetzuko du Pez Limbok Urumea ikastolako eraikin zaharrean, gaztelaniaz, 16 urtetik gorakoentzat.

Ostegunean, bestalde, Ene maite kuttun guztiak, poesia eta musika emanaldi izango

da Biterin, 20:00etan, Anne Sexton antologia liburuan oinarrituta, Ainara Gurrutxaga aktorearekin, Iban Urizar musikariarekin eta Harkaitz Cano idazlearekin.

Bukatzeko, urriaren 11n Kuba, Argentina eta Euskal Herriko inprobisatzaileen emanaldia izango da, 20:00etan Biterin. Maialen Lujanbio eta Julio Soto bertsolariek, eta Tomasita Quiala kubatarrek eta Araceli Argüello argentinarrek hartuko dute parte. Sarrerak, Biterin, 7,5 euroan salduko dira. ||

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **EVARISTO GUEMBELZU SANSINENEA**  
JAUNA  
Atzo hil zen, 93 urte zituela  
- Goian Bego -  
Emaztea: Felisa Aguinaga; seme-alabak: Amaia eta Laxa Mujika, Jone eta Patri Mujika, Itziar eta Jose Mari Patxe; bilobak: Iker eta Garazi, Ifigo, Ainara eta Aritz, Jon, Saioa; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak, gainerako ahaideak eta zaintzailea: Sandra.  
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela **BIHAR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.  
Hernanin, 2018ko irailaren 30ean  
Helbidea: Martindegi auzoa  
OHARRAK: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da, gaur, igandea, eguerdiko 12:30ak arte.

† **EVARISTO GUEMBELZU SANSINENEA**  
'EBAIXTO'  
Laurogehi eta hamairu urte  
bizi luzea zenduan,  
hara ta hona ibili ordez  
beti hemen inguruan.  
Etxe inguru edo auzoa  
zuk zaindu dezun moduan  
billatu arren beste bat ere  
ezta izango munduan.  
**PEIO BELTZA FAMILIA**  
Hernanin, 2018ko irailaren 30ean

**ESKERTZA**  
**Agustina Zapiain Aranburu**  
'AGUSTINI'  
(Joxe Garmendiaren alarguna)  
Orain egun gutxi hil zen  
- Goian bego -  
Agustinaren senitartekoez eta gainerako ahaideez eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztiei eta baita elizkizunetara etorri zireten guztiei ere.  
**ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK**  
Hernanin 2018ko irailaren 30ean

## IRAGARKI MERKEAK

**Langile bat behar da sukaldean lan egiteko**, laguntzaile bezala eta arraskako lanetarako. Kotxea beharrezkoa da. Deitu: 943 33 13 87  
**Esperientziadun andreak lan egingo luke adinekoak zaindu edota lagun egiten**. Orduetgia: goiz eta arratsalde. Deitu: 654 122 548  
**Langile bat behar da sukaldean lan egiteko**. Eskarmentuduna eta lanerako gogoarekin. Deitu: 688 746 105  
**LOGIKALINE enpresak** bi lanpostu eskaintzen ditu zuntz optikoa Gipuzkoan komertzializatzen. Kontratu indefinidua, formazio sendoa eta lan-talde egonkorra. Interesatuak bidali C.V.a [rrhh@logikaline.com](mailto:rrhh@logikaline.com) helbidera  
**Iñigo Royo Masajista**. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)